

## 2025eko HALLOWEENKO ZOZKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak antolatzen du [IFK: H20818944; ondorio hauetarako helbidea: Arizmendi Almirantea kalea 9, 20302 Irun], eta parte hartzaileek arau hauek ulertu eta onartzen dituzte, eta, horrela, men egiten diete, baldintza orokor hauetan.

Sustapena Internet bidez egingo da, Mendibil Merkataritza Guneak Instagramen duen orrian, [https://www.instagram.com/mendibil\\_cc](https://www.instagram.com/mendibil_cc) helbidean.

Sustapen honetan parte hartzea doakoa da: ez da produkturik erosi behar, ez kuotarik edo inongo zenbatekorik ordaindu behar.

### 1. PARTE HARTZEKO DATA

2025eko urriaren 22tik 29ko 15:00etara arte parte hartu ahalko da.

### 2. PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

Espanian bizi diren 16 urtetik gorako pertsonak har dezakete parte.

Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak uste badu parte hartzailearen bat arauz kanpo edo fede txarrez parte hartzen ari dela edo lehiaketak behar bezala funtzionatzea eragozten duela, lehiaketatik kanpo geratuko da. Ez da onartuko profil faltsuen erabilera, ez profilen iruzurrezko erabilera.

### 3. PARTE HARTZEKO DINAMIKA

Lehiaketa honetan parte hartzeko, pauso hauek eman behar dira:

- Mendibil Merkataritza Gunearen kontua jarraitu (@mendibil\_cc).
- 2025eko otsailaren 22tik aurrera, lehiaketaren dinamika azaltzen duen argitalpenari “atsegin dut” eman.
- Argitalpenean pertsona bat aipatu. Zenbat eta gehiago, orduan eta aukera gehiago irabazteko.

### 4. SARIAK

- Bina lagunentzako hiru menu Burger King Mendibilen
- Bina lagunentzako hiru sarrera OCINE aretoetan *Together* ikusteko
- Fotollor Mendibilen hiru katilu pertsonalizatu

### 5. SARIAK BANATZEKO MEKANIKA

Zozketa egingo da parte hartzaile guztien artean.

Antolatzaileak urriaren 30ean jarriko dira harremanetan hiru irabazleekin, Instagram bidez, parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko eta saria onartzen duten jakiteko.

Ezin badira jarri irabazle batekin harremanetan, parte hartzaileen zerrendako hurrengo kidearekin harremanetan jarriko dira.

Behin irabazleekin harremanetan jartzeko eta haien datuak egiaztatzeko prozesua bukatuta, irabazleek Mendibil Merkataritza Guneko bulegoetara jo beharko dute sariak jasotzeko.

### Lehiaketaren oinarrien klausulak

Eman dizkiguzun datu pertsonalei dagokienez, zera jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren arduradunari dagokionez, zure datuak Mendibil Merkataritza Guneko jabeen erkidegoak tratatuko ditu [IFK: H20818944].

Helburuei eta legitimazioari dagokienez, zure datuen tratamenduaren helburua zuk 2025eko Halloweeneko zozketan parte hartzea da.

Epeari dagokionez, zure datuak aipatutako helburua lortzeko beharrezkoa den denboran bakarrik tratatuko dira, haiek erabiltzeko arrazoirik dagoen artean edo titularrak dagozkion eskubideak erabili eta ezereztu egiten dituen arte.

Hartzaileei dagokienez, zure datuak ez zaizkio lagako inongo hirugarreni baldin eta legediak behartzen ez badu.

Eskubideei dagokienez, baldin eta zure datuak eskuratu, zuzendu edo ezeztatzeko eskubideak erabili nahi badituzu, haien aurka egiteko eskubidea, haiek mugatzeko eskubidea eta/edo eramangarritasun eskubidea, edo informazio gehiago nahi baduzu zure datuen tratamenduari buruz, idatzi Mendibil Merkataritza Gunearen helbidera [Arizmendi Almirantea kalea 9, 20302 Irun] edo bidali mezu elektronikoa bat [mendibil@centrocomercialmendibil.com](mailto:mendibil@centrocomercialmendibil.com) helbidera, eta erantsi zure nortasuna egiaztatzeko dokumentu baten kopia bat.